



# ZALDIAREN INGURUAN JAIA BIHAR ASTEASUN

Goizean lau orduko zaldi ibilaldia egingo dute eta 17:30ean zaldi lasterketa izango da Antxota zelaietan >5

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2008-10-18**

VIURTEA 1.537.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



E. EZEIZA

**IÑIGO ASENSIO ETA IÑIGO LARREA 'EVOLUTION & LOVE'-EN EKOIZLEAK**

## «Amodioaren inguruko hausnarketa bat da istorioa»

**TOLOSA** Antzerkia, musika eta dantza uztartuko ditu hilaren 24ean Leidor antzokian antzetzuko duten 'Evolution & Love' lana 2

## Kirol Gaua O'O, «aisia eta droga binomioa hausteko»

**TOLOSA** Hilaren 25ean Usabal kiroldegian dantza, kirola, tailerrak eta bestelako eskaintzak antolatuko dituzte Gazteria eta Kirol sailak 3



Artutxa, Andueza, Renedo eta Cereceda, atzoko aurkezpenean. N. URBIZU

**Legutiora joateko deia, «erabakitzeko eskubidearen alde»**

**TOLOSALDEA** EAJ, EA, EB eta Aralarrek hiru mahai jarriko dituzte gaur Tolosan 6

**Vanessa Alzatek bere lanak bildu ditu Aranburu Jauregiko erakusketan**

**TOLOSA** Atzo inauguratu zuen; «nire barrukoa atera nahi izan dut», azaldu du 4

txokoa **h**

"El Caserio" zartzuela ikusteko  
**2 sarrera**  
zozketan

Larunbata • urriak 19  
20:30ean  
Tolosako Leidorren  
Tolosako Orfeoia eskainita

irabazlea:  
• Ederne Zabala Artano (Tolosa)



Sarrerak leihatilan bertan izango dituzu. ZORIONAK!

HITZAREN HARPIDEDUNENTZAT ABANTAILAK

## E Elkarrizketa

## IÑIGO ASENSIO ETA IÑAKI LARREA, 'Evolution &amp; Love'-en ekoizleak

**Kultura** » Dantza, musika eta antzerkia uztartzen ditu hilaren 24ean, ostirala, Leidor antzokian aurkeztuko den 'Evolution & Love' ikuskizun berritzaileak.

## ESTI EZEIZA

Evolove-ek *Evolution & Love* ikuskizuna aurkeztuko du datorren ostiralean, hilaren 24ean, Leidorren. Musikariak, dantzariak, abeslariak eta aktoreak, denera 20 lagun izango dira eszenatoki gainean, amodio istorio bat kontatzeko asmoz. Ikuskizun berritzaile honen sortzaileetako bi dira Iñigo Asensio (Tolosa, 1985) eta Iñaki Larrea (Tolosa, 1985).

## Nondik sortu zen proiektua?

**Iñigo Asensio:** Proiektu honen aurrekaria, abenduan, Leidorren egindako Eguberrietako jaialdia izango litzateke. Bertan, musika modernoa eta euskal dantzak nahastea erabaki genuen. Beste batean, Iñaki Larrea, Jon Vazquez eta ni hizketan ari ginela gaia ateraz, eta horrekin lotuta zerbait bereziagoa egin genezakeela pentsatu genuen.

## Proiektu xume bat izan behar zuena, gauza potolo bilakatu da.

**Iñaki Larrea:** Lehen asmoa musika modernoa eta euskal dantzak nahastea besterik ez zen, baina puztuz joan zen eta euskal dantza nahiko jorratua zegoenez, zerbait unibertsalagoa egitea erabaki genuen.

**I. A.:** Euskal dantzak, garaikideak, areto dantzak, rock & roll-a... eszenatoki gainean nahastu nahi genituen, konposizio musikalki batekin. Baina gainera, istorio bat kontatzea zen helburua. Dantza ikuskizun batetik haratago joanaz, amodiaren inguruko hausnarketa bat dela esan daiteke. Hasiere, trama eta bukaera ditu emandialdiak.

## Musika, dantza, irudia eta antzerkia uztartzea lortu dituzue eszenatoki gainean. Nola?

**I. L.:** Esaterako, dantza bakarrik ez da izango, honek antzerkiera ere jozen du. Bestetik, musika dago, eta irudi nahiz argia. Argiaz gain, lau



ESTI EZEIZA

## «Askatasuna eta amodioa kontrajartzen dituen istorio bat da»

pantaila erraldoi egongo dira, eta hauetan, istorioari egokitutako irudi abstraktoak nahiz ez abstraktoak ikusi ahal izango dira. Baita, mementoan grabatutako irudiak ere ikusi ahal izango dira.

## Zein da aktoreen lana?

**I. A.:** Aktoreak dantzariak ere bada dira. Oihana Maritorea eta Fer-

nando Ruizek, antzezteaz gain, dantza ere egiten dute. Biak ere, euskal dantzetan eta garaikidean aritutakoak baitira.

## Arte ezberdinak uztartuz, istorio bat kontatzea lortzen duzue.

**I. A.:** Amodioa eta askatasuna kontrajartzen dituen istorio bat da, non kontatzen diren gertaera di-

ren gauzaguztiek eta kontatzen diren istorio gurutzatu horiek, dantzak, antzerkiak, musikak eta irudiak islatzen dituen.

## Erraza izan al da mezua ulerker egitea?

**I. L.:** Ez, nahiko zaila. Horregatik, Iban Garate hausnartzaile lana egingo du. Istorioak ez du aurkez-

lerik, berak bakarrik hitz egin behar baitu. Baina bi aktoreekin eta Iban Garateren hizketaldiekin, gauzak ulertzeko errazago izango dute ikusleak. Nahiz eta ahotsik ia ez egon, tarteka hitz klabe batzuk badaude. Baina ikusleari ez zaio errazegi jarriko.

Zergatik jarri diozue *Evolution & Love* izenburua ikuskizunari?

**I. L.:** Amodioa eta modernitate, eboluzioa, gaurkotasuna islatu nahi dituelako. Hala, hitz hauek, gure ustetan oso ondo agertzen dute, gaur egun, amodioa bizitzeko dauden planteamendu guztiak. Alegia, fidelatasuna eta kontrakoa oso agerikoak dira gure lan hone-

### Sarrerak Orbela tabernan, Zunbeltz dendan, eta Leidorreko lehiatilan daude salgai 15 euroren truke

### Funtsean amodio istorio bat kontatu nahi du ikuskizunak: hasiera, trama eta bukaera du

tan. Eztabaidan jartzen da fidelatasunaren beharra, eta gerora, tesiak agertuko duen honen inguruko iriztia.

## Zergatik aukeratu duzue maitasuna, istorioaren ardatz gisa?

**I. A.:** Amodioa nahiko gai unibertsala da, eta ikuskizun zabalaren gure, egokia iruditzen zitzaigun gai hau jorratzea.

## Zeintzuk izan dira, ekoizpena aurrera eramateko, gairiditu beharreko zailtasun handienak?

**I. L.:** Zailena izan da, profesional hutsak izan gabe, guztiak elkar-tzea. 20 laguneko ikuskizun bat aurrera eramatea ez da erraza. Bakoitzak bere proiektuak zituen, eta Evolove duela hilabete gutxi sortu zenez, hauek elkartzea lan handia izan da. Dena den, aipatu beharra dago, parte-hartzaileek egindako lan izugarria. Hasieratik sinetsi dute proiektuan eta izugarri inplikatu dira, istorioa oso bere eginaz.

## Gustura al zaudete emaitzarekin?

**I. A.:** Hilaren 24an, azken dantzak egin, akordeak jo eta argiak itzaltzean aztertuko dugu. Baina hasieran egin nahi genuenetik asko urrundu da dena, eta gustura gaudete.

## Parte-hartzaile gehienak oso gazteak zarete, baina esperientziakoak aldi berean.

**I. A.:** Dagoeneko izena duten pertsonen parte hartu dute proiektuan. Besteak beste, Iker Vacas, Iban Garate, Oihana Maritorea, Fernando Ruiz eta Jonen. *Evolution & Love* istorio gaztea da, nahiz eta denentzat izan, amodioaren pertzepzio gazte bat da. Bertan agertzen dena, ez da duela 20 urteko amodio ardatzetan oinarritzen. Agian, etorkizunera begira, aztertzen du, amodioa bizitzeko modu berri hori.

BERRIAREN edizio digitalaren diseinatzeko/programatzeko lanpostua betetzeko pertsona bat behar da. (Eref. 200810 EH-DP)

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lengaiaien eskaintza izatea.
- XHTML eta CSSren mokatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontrata luza datekei.
- Lanari berehalako hasiera izangoa.

Bidali curriculuma [gb@berria.info](mailto:gb@berria.info) helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz, urriaren 22a baino lehen.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Artutxa kirol teknikaria, Andueza gazteria zinegotzia, Renedo kirol zinegotzia eta Cereceda gazteriako teknikaria. N.U.

## «Aisia eta drogen binomioa hausteko» Kirol Gaua O'O

**Tolosa** » Hilaren 25ean Usabal kiroldegian dantza, kirola, tailerrak eta bestelako eskaintzak antolatatu dituzte.

### NEREA URBIZU

Atzo Kirol Gaua O'O aurkeztu zuten Tolosako Usabal kiroldegian. Hilaren 25ean izango da Usabal kiroldegian bertan. Prebentzioaren eta aisialdiaren ikuspuntutik sortutako programa da. Tolosako Gazte sailak eta Kirol sailak antolatuta da Kirol Gaua O'O. «Helburua gazteak ongi pasatzea eta gozatzea da, drogen kontsumoa alde batera utzita».

Kirol Gauarekin «aisialdia eta kontsumoaren binomio hori hausti egin nahi dugu: kezkatzen gaituen gaia da». Erakutsi nahi dute, «aisia drogarik gabe ere posible dela». Ekimena 13 eta 30 urte bitartekoentzat da aproposena.

20:00etan hasi eta 01:00ak arte izango dira Usabalen izango diren kirol aukeraguztiak, baina ez dakirola bakarrik izango, afari bat ere prestatu baitute (alkoholik gabea), eta DJ baten saioa ere izango da. Kirol jardueren baitan, basket 3x3, areto futbol partida eta cycling izango dira. Hauxe gain, kart-ak,

goming-lanzadera, dantza, Lain taldearen kontzertua eta Light Graff session izango dira. Hauekin lotuta, tailerrak egiteko aukera ere zabalik dago.

### Sari handiak ere bai

Sariak ere banatu dituzte parte hartzen duten irabazleen artean, areto futbolearen eta basket 3x3an, hain zuzen. Aurten, Liverpoolera futbol partida bat ikustera joateko saria dago irabazten duen taldeko bost jokalarientzat. Berdin basketeko hiru jokalaririk irabazleentzat. Bruseta taldeak ikustera joateko hiru harpidetza.

Basketen nahiz areto futbolearen aritzeko izen-emate epea zabalik dago. Horretarako Usabal kiroldegira jo behar da.

### Margotu gabeko graffitiak

Berrikuntzen artean, Light Graff session dago, hau da; argiekin egindako graffitiak. Beraz, ez dira hormak margotuko. «Argazkilaritzarekin lotura zuzena duen joera berria da, gure argazkietan argi mugikor baten edo batzuen bidez irudiak egitea da azkenean».

Tailer hau egiteko GKO Galeriarren laguntza behar izan dute, eta han izango dira teknika berri honen berri ematen eta sortzen laguntzen.

### » EGITARAUA

- **20:00-22:00.** Basket 3x3 eta areto futbol txapelketak, Usabalgo kantxatan.
- **20:00-23:00.** Cycling-eko maratoia.
- **20:00-22:00.** Afaria O'O gaztetxoentzat, Usabalgo sagardotegian. Txartelak Usabalen eta Gazte Topagunean salgai. (12 euro).
- **22:00-01:00.** Karting-ak.
- **22:00-02:00.** Futbol zelaian goming lanzadera (30 metrora).
- **22:00-01:00.** Ambient musika Nemux DJarekin eta honi buruzko tailerra.
- **23:00-00:00.** Sarreran, Lain taldearen kontzertua.
- **22:00-01:00.** Light Graff session eta tailerra. GKO galeriaren eskutik.



Irudian, argi graffiti bat. HITZA

## Kobre-haria lapurtzea egotzita gizonezko bat atxilotu dute

**Bidegoian** » Gizonezko bat atxilotu zuten herenegun gauean; orain Ertzaintza ihes egin zuen beste pertsonaren bila ari da.

### ERREDAKZIOA

Argiteria publikorako erabiltzen den kobre-haria lapurtzea egotzita gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak, ostegunetik ostiralera-ko gauean, Bidegoian. Lapurrak berak aitortu zuen ohosten ari zela.

Ertzaintzak Erreterriako gizonezkoa Bidegoiango herri sarreran dagoen industrigunean atxilotu zuen, argiteria publikorako erabiltzen den kobre-haria lapurtzen saiatzen. 01:30ak baino lehenago herritar baten deia jaso zuen Ertzaintzak, industrigune inguruan lapurreta egiten ari ziren susmoa

zuela adieraziz. Deia egin zuenak, bilagun arketak altxatzen ari zirela eta kablea ateratzen ari zirela ikusi zuen; horregatik abisatzea erabaki zuen.

Ertzaintza bertan azaldu zenean J.S.H. erreteriar gaztea aurkitu zuten, eta lapurrak berak aitortu zuen lapurtzen ari zela eta ihes egin zuen beste lagun batekin zegoela.

Ertzainek ingurua begiratu eta zabalik zeuden arketa asko topatu zituzten, eta farolen ondoan kable hondarrak pilatuta. Hauekin batera, hainbat erreminta ere zeuden, kablea ateratzeko erabili zutena, hain zuzen ere (metalkina eta palanketak); hala onartu zuen atxilotutako lapurrak.

Atxilotutakoa epailearen aurretik pasa zen atzo, eta bitartean Ertzaintzak ihes egin zuen ustezko lapurra non den ikertzen jarraituko du.

## Euskadiko txapeladuna Gipuzkoa izan da

**Halterofilia** » Danena Olaederra taldekoak ziren Gipuzkoako 15 urte azpiko kide guztiak; banaka ere lan ona egin dute.

### ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean (hilaren 11n) Euskadiko 15 urtetik beherako Halterofilia Txapelketa Galdakaoan ospatu zen eta bertan Danena-Olaederra (Villabona-Zizurkil) Halterofilia taldeko pultsulariek parte hartu zuten.

Taldeko Saillkapen Orokorrean Gipuzkoa saillkatu zen lehenengo postuan, 785,53 puntuak lortuz. Taldea osatzen Adrian Sasiain, Koldo Saracho, Iñaki Zubezu, Asier Gallego eta Kellyam Quinta-

na zeuden; hau da, Danenako pultsulariak denak, Gipuzkoako Taldea osatzen. Bigarren postua Nafarroarentzat izan zen 710,07 punturekin, hirugarrena Bizkaia 501,53 punturekin eta laugarrena Araba 259,89 punturekin.

### Banakakoan ere «ondo»

Ezin kezatu Banakako Saillkapen Orokorrean lortutakoarekin. Izan ere, Adrian Sasiainek bigarren postua eskuratu zuen, Iñaki Zubezuek laugarrena, Koldo Saracho bosgarrena eta Asier Gallegok, berriz, seigarrena.

Gaur Basaurin, Urbi Trofoea ospatuko da eta bertan, berriz ere Danena-Olaederra halterofilia taldeak parte hartuko du, saio on bat egiteaz gain, emaitza onak lortzeko helburuarekin.

## Hilberriak

### JULIANA LIZARRIBAR JAUREGI

(Pedro Zabalen alarguna)  
-Goianbego-



Igartu da igartu  
Iruntziko zuhaitz zabal emankorra  
eta guk, zure landareok, amona,  
nola ordaindu zurekin dugun zorra?



LIZARTZAN  
2008ko urriaren  
18a

Zure bilobak: Pello-Amaita, Ion Ander-Arantxa, Iker-Jone, Igor-Ixtaso, Miren-Igor, Nerea, Ainhoa-Andoni, Melodi, Aloña, Iban, Ane, Txoan, Jatsu, Lierni, Amaia, Irati; birlobak: Olatz, Aitziber, Malen, Joana, Maier.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# «Nire barrukoa transmititu nahi izan dut lan hauekin»

VANESSA ALZATE » Artista

## NOELIA LATABURU

«Ilusio handiz eta pixka bat urdurir». Horrela zegoen atzo Vanessa Alzate (Ibarra, 1981) artista, Tolosako Aranburu Jauregian bere barkarko lehen erakusketa inauguratu baino ordu batzuk lehenago. Azaroaren 15era arte egongo da ikusgai.

### Zure lehen erakusketa eta etxean...

Bai, ilusio handia egiten dit; nahia-go nuen lehenengoa horrela izatea.

### Eta zer ikusiko du erakusketara gerturatzeko denak?

Gehienbat pintura egin dut. Honekin batera eskultura, collageak, aguafuerten eginiko grabatua eta eremu publikoan interbentzioa.

### Eta zertan datza azken hau?

Bertatik pasatzen dena segituan konturatuko da. Leitza kaleko 4. solairuan: ate bat jarri dut behatxulo pilakin. Bertan zegoen ate zaharrak zulo natural bat zuen begien altueran. Hortik okurritu zitzaidan behatxulo asko jartzea atari, bertatik pasatzen denari haie-tatik begiratzeko tentazioa pizteko, kuriositatearekin jolaste-

ko. Alboan laurel jarri diot. Ate zaharra, berriz, Aranburun egongo da, erakusketan.

### Zer transmititu nahi duzu lan hauekin?

Gauza asko dira, batzuk pertsonalak, besteak orokorragoak. Barruan ditudan sentsazioak ateratzen saiatu naiz. Esaterako, grabatuetan, euskal sinboloak erabili ditut. Pintura askotan indibiduoak bakarrik azaltzen da, bakardadearen eta besteen beharraren hausnarketak bat da. Bizi/heriotza, erotismoa, ... ere landu ditut.

### Lan handia izan al da erakusketa hau prestatzea?


Egia esan, erakusketa proposatu zidatenean, material gehiena presaturik nuen. 2-3 urteko lana izan da.

### Lanen bat bereziki egin al duzu?

Bai, collage bat, guanteekin egina. Peñaskal fundazioan egiten dut lana eta nire lankide etorkinek erabiltzen dituzten guanteak baliatu ditut lana osatzeko, euren istorioa kontatzen dut.

### Erreferentziarik izan al duzu?

Ez nuke estilo batekin identifikatuko, nahiko lan libre izan da.

**G Gutunak**

**Kalitatea Europatik?  
Harrapazan!**

Gipuzkoako EHNEko haragi sailetik ezinbestekotzat jo dugu esku-titz hau idaztea sinistu ezinik geratu baikara TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN urriaren 4an argitaratu zen elkarrizketa ikusita.

Elkarrizketa hori, kilometroak 2008rako haragi hornitzaile izango zen Dastatzen enpresako kide bati egina zen. Honek zioenez, hemengo kontsumitzaileek eskatzen duten kalitateko haragia lortzeko Europara jotzen dute, gero hemen erretegi, sagardotegi eta beraiek dituzten harategietan saltzeko.

Hau gertatzen den bitartean, bertako baserriarrak, txahalak gizen du ondoren saldu ezinik gabiltza, honek dakarzkigun gastuekin. Gipuzkoan, kontsumitzen den haragiaren %27 soilik ekoizten dela bertan kontuan harturik, eskuetik kendu beharko ligukete gure haragia; kalitatea bermatzen duena bera baita, ekoizpen txikiko baserrietan, pentsu ona erabiliz eta gertutasunean oinarritzen den kalitateko produktua. Eta ez kanpotik kamionetan ordu luzez ibilita edotajada hila eta kanaleetan sartzen dena, zer baldintzatan gizen duak diren ere ez dakigun «kalitateko» haragia. Azken hau, prezio merkean erosi eta Dastatzen bezalako biartekariak poltsikoak betetzeko erabiltzen dute, sektorea hiltzen duten bitartean.

Lotsagarria deritzogu gure baserrietako egoera hain latza denean (batez ere txekorrek zerealekin eginiko pentsuarekin gizentzen ditugulako, gastuak igoz), horrelako lanetan diharduten enpresa bat kontsumitzaileari gezurretan ari-tzea, bere poltsikoen mesedetan.

Beraz, kontsumitzaile: jakinaren gainean jarri nahi zaitugu. Kalitatea bermatzea nahi baduzu, eska ezazu bertako baserrietan ekoiztako haragia. Ez diezazuela ziririk sartu.

**Garikoitz Nazabal.** Gipuzkoako EHNEko Haragi sailako arduraduna.

**Gaur goizean  
Amezketan eta  
Beotibarren  
pilota partidak  
izango dira**

**ERREDAKZIOA**

Gaur 10:00etan Amezketako pilotalekuan Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketako 3 norgehiagoka jokatuko dira, eta Zazpi-Itturriko jubilenen (binaka) eta kadeteen txanda izango da (banaka-binaka).

Beotibarren, berriz, 10:30ean hasiko dira Aurrera-Saiatzkoak, eta azken partidari Zazpi-Itturri-ekin ariko dira seniorrak.

**Zaldi ibilaldia eta lagun arteko zaldi lasterketa antolatu dute biharko**

**Asteasu** » Goizean lau orduko ibilaldia izango da eta 17:30ean lasterketa; bietan parte hartzeko izena oraindik ere eman daiteke.

**NEREA URBIZU**

Asteasun zaldi ibilaldia eta lasterketa antolatu dituzte biharko. Helburua «egun polit bat pasatzea» da, eta horregatik antolatzaileek bai ibilaldian eta baita arratsaldeko lagun arteko lasterketan ere, parte hartzera animatu nahi dute jendea.

Igandean goizez egingo dute ibilaldia, 09:00etan hasita, baina zaldunak bertan 08:30ean azaltzea gomendatu dute, Olarra Goikoa jatetxearen inguruan. Momentuz 40 zaldunetik gora elkartuko dira, «baina 50 bat espero ditugu». Ibilaldia Olarreaga Goikotik hasi eta Andazarrate gainera joango dira, gero Iramuño menditik zehar airtzeko. Saskaratera abiatuko dira ondoren, Zaratetik ibili eta Zizurkil Beherara iristeko. Handik eskuin aldera hartuta, Elizmendi auzora iritsiko dira zaldunak.

Asteasun hamaiketakoarekin atsedentxo bat egingo dute, «11:30a edo 12:00ak aldera izango dela uste dugu». Erreka bailara alderaka joango dira gero, jada indarberrituta eta Abeletxetik pasako dira Izurzuraino iritsi arte. Bertan beste geldialdi bat egingo dute, eta handik berriz, hasitako lekura ailegatuko dira.

Bazkaria 14:30ean izango da,



Zaldi lasterketa santamafiaren egiten ohi dute, baina aurten eguraldiarengatik bertan behera geratu zen. A. OTEZABAL

Olarreaga Goikoa bertan. «Nahi duenak han bazkaltzen gelditu daiteke».

«Ibilaldia oso lasai egingo dugu, erritmo lasaian. Lau orduko izango da baina hau arin egingez gero, bi ordu eta erditan egin daiteke». Umeek ere parte hartu behar dute biharkoan.

**Arratsaldean lasterketa**

Bestalde, uztaileko Santamafia jaietan bertan behera geratu zen zaldi lasterketa antolatu dute Antotako zelaian, 17:30etik aurrera. Beraz, bazkaldu ondoren, bertara joango dira bazkaltziarrak, animatzen denak lagun arteko lasterketa

egiteko. Esan bezala, izenik ez da eman behar parte hartzeko.

Lasterketa hau «barre batzuk botatzeko» izango da. Erraza izango da ere arratsaldeko, 4-5 buelta ematea izango baita zelaian. «Kontuan hartu behar da ere, zaldi asko behintzat goizean ere aritu direla, ibilaldia egiten eta neke pixka bat sentituko dutela». Honetan parte hartzeko ez da izenik eman behar inon, azaltzearekin nahikoa.

Eguraldi txarra egingez gero antolatzaileek bi ekitaldiak egitea erabaki dute. «Eguraldi ona egingez gero 50 bilduko gara, eta txarra egingez gero hamar, baina aterako gara».

**Izen-emate epeak zabalik**

Zaldiarekin ibilaldia egiteko asmoa duenak oraindik ere badu aukera, honako telefono zenbaki hauetara deituta: 659 659 011 edo 676 90 02 57. Bazkaria ere izango da, eta bertara joatea ere libre da, hau da; ez da bakarrik zaldunen-tzat, baina honetarako ere izena ematea eskertuko dute antolatzaileek.

Helburua «egun polit bat pasatzea» da. Antolatzaileek parte hartzera animatu nahi ditu dudatan daudenak ere. Zaldunentzat erakargarria bada, ikusle bezala doanentzat ere ikusgarria izango da biharkoan.

## Lasa eta Zabala ren omenezko manifestazioa debekatu dute

### ERREDAKZIOA

Joxean Lasa eta Joxi Zabala ekin-zaileren heriotza eta auzia salatze-ko asmoz gaurko Tolosan manifestazioa zegoen deituta, baina Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak debekatu egin zuen atzo, Dignidad y Justicia elkarteak eskatuta. Garzonen esanetan «manifestazioa Amnisi-

tiaren Aldeko Batzordeek eta Askatasuna legez kanpoko erakundeek deitu zuten».

Herenegun, hilaren 16an, 25 urte bahitu zituzten Baionan Lasa eta Zabala, etakideak zirelakoan. GAL Espainiako erakundearen lehen ekintza izan zen, eta Enrique Rodríguez Galindo Guardia Zibileko jeneralari bi haiek torturatu

eta erailteagatik 75 urteko kartzela zigorra jarri zioten.

Urteurren hau gogoratzeko asmoz, lore eskaintza egin zuten herenegun, bi tolosarren omenez Benta Haundin kokatuta dagoen monolitoan. Gaurko berriz, manifestazioa zegoen deituta arratsaldeko zazpietarako. Hau Triangulotik abiatuko zen.

## Urriaren 25ean Legutiora joateko deia egin dute



Tolosaldeko EAJ, EA, EB eta Aralarreko hainbat kide herenegun. R. CALVO

**Tolosa**» EAJ, EA, EB eta Aralar hiru mahaietan izango dira gaur, erabakitze eskubidearen aldeko ekimenaren baitan.

### REBEKA CALVO

Tolosaldeko EAJ, EA, EB eta Aralar alderdiek datorren hilaren 25ean burutuko duten erabakitze eskubidearen aldeko ekimen bateratuan parte hartzeko deia luzatu dute.

Izan ere, Jokin Bildarratzek (EAJ), Tolosako alkateak, prentsaurreko bidez jakinarazi zuenez, «bailarako lau talde politikoko batera azaltzea oso garrantzitsua» da.

«Erabakitze eskubidea aldarrikatzeko» unea dela ere esan zuten Bildarratzek.

Auzitegi Konstituzionalak euskal herritarrei Juan Jose Ibarretxe lehendakariak proposatutako eta Eusko Legebiltzarrak onartutako galdeketa egitea debekatzearen ondotik etorri da lau alderdien ekimena. *Hitzaz hitz* bezala bataiatu dute eta Gernika eta Gasteiz artean garatuko dute «subjektu politikoa ere bagarela» argi uzteko, esan zuten alkateak. Horiek horrela, parte hartzen dutenek sei hitz osatuko dituzte beste hainbeste herritan. Gernikan *euskal* hitza eratu dute; Zornotzan *herria*; Durangon *bakea*; Urkiolan *bai* erantzungo diote Durangoko mezuari; Legu-

tion *Erabakia* hitza osatuko dute; eta Gasteizen *bai* erantzungo diote Legutioko erabakitze eskubidearengaineko Ibarretxerengaldeketa-aren bigarren galderaren laburpenari, hau da *erabakia*ri.

### Gipuzkoarrak Legutiora

Gipuzkoarrei Legutiora joatea egokitu zaiela argitu zuten Bildarratzek eta horretarako autobusak jarriko dituztela ere esan zuten.

Hori dela eta, gaur, larunbata, hiru mahai jarriko dituzte Tolosako Kastillako atean, San Frantziskon eta Euskal Herri Plazaren inguruan 11:00etatik 13:30era. Mahai hauetan, batetik, autobusetan izena emateko aukera eskainiko dute eta, bestetik, erabakitze eskubidearen aldeko sinadurak bilduko dituzte.

Andoni Iturzaetak (EA), Tolosako Kultur Zinegotziak, bere aldetik, urriaren 25ko erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldi bateratua egiteko oinarrien berri eman zuten. Bere hitzetan, «Auzitegi Konstituzionalak ezetza eman dio gure Legebiltzarrak bultzatutako galdeketa» eta honek «espainiar izateaz gain» beste inolako erabaki eskubiderik ez dagoela uzten du agerian. Horregatik bultzatu dute EAJ, EA, EB eta Aralarrek ekitaldi bateratua: «Ziur gaudelako gizar-tearengiengoak bat egiten duela lelo honekin -*Hitzaz hitz*, alegia-. Gatazka egoera honetan bi izan behar dira eta zutabe nagusiak: erabakitze eskubidea eta indarkeria eza, ez du balio baten aitzakiarikin bestea ezkatzea», esan zuten.

Hitza hartu zuten azkena Aralarreko Inaki Irabazalbeitia izan zen eta honek ere elkarlanean aritzen oso garrantzitsua dela azpimarratu zuten. «Batzen gaituenari begiratu behar diogu», argitu zuten. Horiek horrela, Aralarreko kideak «herri honek bakea nahi duela argitze» batetik, gaurko mahaietara gerturatzeko eta, bestetik, hilaren 25ean Legutiora joateko deia egin zuten.



Juan Garibi hitzaldiko une batean. IBARRATIK MISIO TALDEA

## Banka Etikoa, dirua modu «arduratsuan» kudeatzeko formula

**Ibarra**» Ibaratik Misio Taldeak gonbidatuta Fiare Banka Etiko egitasmoko Juan Garibi arduraduna izan berri da herrian.

### ERREDAKZIOA

Banka Etiko eta Alternatiboko Fiare egitasmoa asmo jakin batekin jaio zen: «euren diruaren kudeaketa arduratsua eta kontzientea nahi duten aurretzatzaileen elkar-gunea izatea». Ez da egitasmoberrira, urteak baitaramatzate Espainiako herri desberdinetan Banka Etikoaren bulegoak irekitzen. Orain gutxi iritsi da Ibararra, ordea, bertan izan baitzen Ibaratik Misio Taldeak gonbidatuta egitasmoko honetako arduraduna, Juan Garibi. 24 bat pertsona bildu ziren teknikoaren azalpenak entzuteko.

### Aurretzatzaileak hezi

Garibik esan zuenez, «Banka Etikoak aurretzatzaileekiko egiteko hezitzaile du, baita kredituaren onuradunen aurrean ere, horretarako lehenengoei euren dirua zertarako eta nola erabiliko den esate diegu eta bigarrenegoei euren autonomia eta enpresa-gaitasuna erantzukizunez garatzera gonbidatzen diegu».

Dirua kudeatzeko modu honek, hala ere, ez du finantza modu tra-

dizionalen arau oinarrikoenak erabat baztertzeko, baina «finantza sortzeko erabiltzen diren baloreak berregin nahi ditugu», argitu zuten Fiareko kideak.

Horiek horrela, Banka Etikoak argi ditu zeintzuk diren bere oinarriak: kreditua giza-eskubide bat da; eraginkortasuna eta soiltasuna erantzukizun etikoaren osagarriak dira; dirua edukitzeagatik edo trukatzeko lortzen den onura guztien onurarako bideratutako jardueren ondorio izan behar du eta hori lortzeko esku hartu duten guztien artean era egokian banatu behar da; etikoa den edozein finantza-jarduerako ezaugarri funtsezkoena egindako eragiketen erabateko garrantasuna da; enpresetako erabakiak hartzerakoan parte-hartzea bultzatu behar da, ez bakarrik kideen artean, baizik eta aurretzatzaile guztien artean; eta Finantza Etikoa bultzatu nahi duten instituzioek bere egiteko guztietara zabaldu behar ditu oinarri hauek.

Horiek horrela, Garibiak Fiareren etorkizuneko erronka nagusia 2011. urterako Kreditu Kooperatiba bat sortzea dela esan zuten. Entitate honek legeak aurreikusten duen onarpenera eskatuko du horrela autonomoa den finantza-entitate bezala lan egin ahal izango duelarik, baina Banka Etikoaren oinarriak kontutan hartuta.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Motorra.** KYMCO, 125 c.c., 2006. urtekoa. 6.600 km. Oso egoera onean. 665 738 525.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai ikaztegiatan. Herriaren erdiguneko kokatua. Igogailua eta bi balkoi ederrekin. Deitu iluntzetan 628 698 807 edo 666 615 766 telefono zenbakietara.

### ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Garaje itxi bat alokatzen da Tolosako Triangulo plazan. Deitu 677 000 005.

### LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako edota umeak zein edateko jendea zaintzeko esperientziadun pertsona eskaintzen da. 695 715 373.

## Laburrak

### Erretiratuen Egunerako izen-emate epea zabalik

**BELAUNTZA**» Aspaldiko urteetan egin moduan aurtengoan ere Erretiratuen Eguna antolatuko dute Belauntzan. Jai eguna hilaren 26an izango da eta bertan parte hartzeko izen-emate epea hilaren 23an amaituko da. Udalera deitu behar da horretarako: 943 67 43 66.

### Poxpolo eta Mokolo izango dira herriko pilotalekuan

**LEABURU**» Hilaren 26an Poxpolo eta Mokolo pailazoan emandakoa izango da Leaburuko pilotalekuan 18:00etan. Ondoren, Udaletxeak merienda txoa ere eskainiko du. Ekintza hau Leaburuko Udaletxeak eta Uli Mankomunitateak antolatuko dute eta Kutxak sustatu du.



Nafar Jokoak asteburu honetan jarriko dituzte martxan Nafarroako Pilota Eskola ezberdinek. HITZA

## Nafar Jokoen barneko lehen pilota partidak asteburu honetan jokatu dituzte

**Leitza** » Aurrera Pilota Eskolako haurrak, Nafar Jokoetan, Burlatan, Errioxan eta Gartzaron-en ariko dira gaur eta bihar.

ASIER IMAZ

Nafarroako Pilota Eskolen artean Nafar Jokoak antolatu dituzte aurtenean. Lehen txapelketa asteburu honetan hasiko da, Egunerrietan amaitzeko. Ikasturtea luzea de-

nez, haurrek bigarren txapelketa bat jokatu dute lehena amaitzen. Nafar Jokoen hirugarren fase-rik egongo den edo ez, iaz bezala, antolatzaileek erabaki beharko dute.

### Aurrera eta Leitza Nafar Jokoetan protagonista

Leitza Aurrera Pilota Eskolako pilotari gazteak Nafar Jokoetan egongo dira aurtenean. Horretaz gain, Leitza pilotalekuan txapelketako partida ugari jokatu dira.

Urrutira joan gabe, atzo jokatu zuten Amazabalen lehen partida Sagastibelza eta Olano bikote leitzarrek. Gaur berriz, 10:00etatik aurrera bost pilota partida jokatu dira.

### Gaur, Amazabal pilotalekuan

Benjaminak, alebinak eta infantilak elkartuko dira gaur Amazabal pilotalekuan, 10:00etatik aurrera, Nafar Jokoetako bost partida jokatuko asmoz. Hauek izango dira Aurrerako pilotarietako jokatu di-

tuzten partidak: jaialdiko lehenengoan, Irurtzungo pilotarien aurka, Joanes Illarregi eta Joseba Eskudero ariko dira. Bigarren lehian, Ander Alduntzin-Befiat Altzelai bikotea irtengo dira kantzara. Hirugarren partidari, Beti Onak-en aurka, Aimar Gil eta Mikel Eraso ariko dira. Laugarrenean eta bosgarrenean, etxeko lau pilotariren arteko norgehiagoketak ikusteko aukera egongo da; Ander Gartziaarena-Markel Barriola bikoteak, Asier Gil eta Inigo Mitxaus izango dituzte aurrean eta Josu Zabaleta-Lenitz Galartza bikoteak, Ibai Gil eta Sagastibelza.

### Beste hiru txapelketa

Nafar Jokoetako pilota partidetan parte hartzean gain, Aurrera Pilota Eskolako haurrak Burlatan, Errioxan eta Gartzaron-en jokatu dituzten txapelketetan egongo dira asteburu honetan.

Burlatoko Txapelketan Igartua eta Zubiria alebinetako jokatu dute gaur 16:00etan hasiko den jaialdiko seigarren partida.

Errioxako Txapelketan, Leitza-tik hiru pilotari joango dira Navarretara (Errioxa). Gaur 16:00etan hasiko den jaialdian, Olanok jokatu du infantiletan. Gaztekoaren partida arratsaldeko hirugarrena izango da eta Apeztegia lagun duela irtengo da frontoira. Beste bi pilotari leitzarrek, Gartziaarena eta Sagastibelza Lasarte alebinak, bihar jokatu dituzte euren partidak 10:00etatik aurrera Navarretako pilotalekuan. Gartziaarenak Espinal izango lagun eta Sagastibelzak Petite. Jaialdiko lehen eta bigarren partidak jokatu dituzte.

Azkenik, Gartzaronen (Nafarroa) Xabier Jaunarena-Mikel Hernandorena bikote leitzarrek, infantil mailako finala jokatu dute gaur, 16:00etan hasiko den jaialdian. Eurek bigarren partida jokatu dute.

## Asier Pellejero 3. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketaren finalean

**Areso** » 27 urteko gazteak gaur jokatu du finala 18:00etatik aurrera, Altsasuko Iortia Kultur Gunean.

A. IMAZ

Asier Pellejero aresoarrak III. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketaren finala jokatu du gaur 18:00etan Altsasun (Nafarroa). 27 urteko gaztearekin batera beste bost aizkolari lehiatu dira Iortia Kultur unearen aurrean: Ander Erasan, Aitzol Atutxa, Aratz Mugertza, Raul Castro eta Jexux Etxeberria. Egunaldi kaskarra egiten baldin badu gaurkoan, finala Burundan jokatu dute.

### Pellejero 3. denbora onena

Asier Pellejero finalerako txartela hirugarren denbora onena egin ostean lortu zuen. Gaur 18:00etan jokatu duten finaleko lanari dagokionez, aizkolariek 54 ontzako hiru enboretara 60 ontzako bimotoz beharko dituzte.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Germikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarar autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udalteiaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

## Bengoetxea eta Olazabal aurrez aurre

**Pilota** » Leitza eta aresoarra Lau t'erdiko Txapelketaren final-hamaseirenetan aurkari bezala ariko dira.

A. IMAZ


Oinatz Bengoetxea eta Mikel Olazabal pilotariaren arteko lehian etzi, urriaren 20ean, jokatu da Tolosako Beotibar pilotalekuan, 16:30ean hasiko den jaialdian. Leitza eta aresoarrak bigarren partida jokatu dute.

### Lehen Mailako lau t'erdikoan

Bi pilotarietako etzi ekingo diote Lehen Mailako lau t'erdiko pilota txapelketari. Final-hamaseirenetan elkarren aurka jokatu dute



Oinatz Bengoetxea eta Mikel Olazabal etzi Beotibar pilotalekuan. HITZA



eta galtzaile txapelketatik at geratu da. Irabazleak Kokaren aurka jokatu du urriaren 26ean, igandean, final-zortzirenetako partida. Pilotari donostiarrak, Kokak, Be-

rasaluzeko IX.a garaitu zuen iragan asteburuan 22-10.

Oinatz Bengoetxea sasoian aurkitzen da Titin III.a garaitu ostean, nahiz eta lagunarteko partida izan,

Trizioko (Errioxa) aurrelaria gaituzte ez da inoiz erraza suertatzen. Olazabalek berri bere lehen partida jokatu du Lehen Mailako Txapelketa batean. Aspekto pilotariaren esanetan, «argi dago faborito nagusia Oinatz Bengoetxea dela, baina dena ematera irtengo naiz, ahalik eta hobekien jokatuzera irtengo naiz». Aresoarrak txapelketa handi batean jokatzen duen lehen partida izaki etzikoa, «urdu-ritasunak» zeresana izan dezakeela ere onartu zuen.

### Material hautaketa

Herenegun aukeratu zuten materiala Beotibar pilotalekuan Bengoetxea eta Olazabalek. Leitzaarrak 105,6 gramutako bi pilota aukeratu zituen eta aresoarrak 105,5 eta 102,8 gramotakoak.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Villabona.** Independentzia Egunaren aurkezpena astelehenean udaltxeko balioanitzeko gelan, liburutegi gainean, 19:00etan.  
■ **Tolosa.** Bonberenea 8. Skate Txapelketa 16:00etan eta Graffiti erakustaldia goizetik iluntzerarte Bonberenean.

### Musika

■ **Alegian.** 19:45ean elizan Astigarragako Aiztondo eta Txintxarri abesbatzen kontzertua, udazken kulturalaren baitan.  
■ **Berastegi.** Bide Ertzean talde tolosarraren emanaldia Urepel elkartean 22:30ean. Sarrera doan izango da.  
■ **Tolosa** Black lagun eta Folson four taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.  
■ **Villabona.** 12. Gipuzkoako Kantu Txapelketako kanporaketa Gurea zinema antzokian 18:00etan.

### Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Sara - Zugarramurdi mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek hilaren 26rako. 7 ordu durako ibilaldia da Larrun (900 m), Ibantelli (698 m) eta Atxuria (756 m) mendiak igoz. Izen-emaitea, elkartearen bertan (943 652789)

### GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

# Urte osoko irudirik ederrena



Hau izan da 2009. urteko egutegirako aukeratu duten argazki irabazlea. IDOIA ZABALETA

**Tolosa** » Idoia Zabaletak irabazi du 2009ko egutegiko Lehiaketa, 'Dantzariak Santa Maria Plazan' lanarekin.

### ERREDAKZIOA

Oraindik bi hilabete eta erdi gertatzen zaizkio 2008. urteari, baina Udaletik dagoeneko hasi dira hurrengoan pentsatzen. Besteak beste, prest dute 2009. urteko egutegia, Tolosagasaki eta Tolargik antolatzen duten lehiaketari esker. Izan ere, urtean zehar tolosarrek herriko jaiei buruz ateratako ar-

gazkiak bidaltzeko aukera izan dute, datorren urteko Udalaren egutegia osatzeko.

Orotara, 55 argazkilarik aurkeztu dute euren lana, eta guztira 1.042 argazkiak bildu dituz epaimahaia.

### Gasa eta argia, doan irabazleentzat

Epaimahaiaren ebazpenaren arabera, Idoia Zabaletaren *Dantzariak Santa Maria plazan* argazkia izan da guztietan onena. Berarentzat saria ez da makala, gasaren eta argiaren faktura dohain izango du urtebetez. Halaber, Udalaren egutegi ofizialaren azalean joango da

bere argazkia. Beste 12 irabazle izan dira, urteko 12 hilabete bakoitzari dagozkien argazkiekin.

### » IRABAZLEAK

■ **Azala.** Idoia Zabaleta, *Dantzariak Santa Maria plazan*.  
■ **Urtarrila.** Josetxo Gabarain: *Inauteri kontzertua*.  
■ **Otsaila.** Mikel Uranga, *Inauteriak*.  
■ **Martxoa.** Simon Arrigain, *Plaza Zarra*.  
■ **Apirila.** Jose Maria Arrigain, *Korpus Jaia*.  
■ **Maiatza.** Txaro Puras, *San Juan prozesioa*.


Hauetakoa seik gasa izango dute doan urtebetez; beste seirek, bezarritz, argia.

■ **Ekaina.** Javier Ortiz, *Eskopeteroak*.  
■ **Uztaila.** Miren Atxaga, *Dantzaldia*.  
■ **Abuztua.** Jose Antonio Abaigar, *Erraldoiak*.  
■ **Iraila.** Felix Aiestaran, *Dantzari Txikien poza*.  
■ **Urria.** Idoia Zabaleta, *Udaberri 50. urteurrena Plaza Berrian*.  
■ **Azaroa.** Asier Romo, *Koloreak hegan*.  
■ **Abendua.** Laida Artola, *Gabonak Napar zubian*.

## A Agurrak



**Urte askoan amona!**  
**Maria Esnaola (Lizartza).** Gaur 93 urte. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.



**Zorionak!**  
**Josefa Galarza (Amezketza).** Gaur 101 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak urtebetezko ezteiak ezkontzak jaioberriak jaunartzeak...

